Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

# Arabako Industrialdea, SA

2017

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

## AURKIBIDEA/ÍNDICE


LABURTZAPENAK ........ 5

I. SARRERA ........ 6

II. IRITZIA ........ 8

II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia ........ 8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia ........ 8

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK ........ 9

III.1 Kontratazioa ........ 9
III.2 Hornitzaileei ordaintzeko epeak ........ 9

IV. URTEKO KONTUAK ........ 10

ERANSKINAK ........ 12

A.1 Araudi aplikagarria ........ 12
A.2 Ibilgetuko inbertsioak ........ 13
A.3 Izakinak ........ 13
A.4 Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk ........ 14
A.5 Epe laburreko zorrak ........ 14
A.6 Negozio zifraren zenbateko garbia ........ 15
A.7 Langileria ........ 15
A.8 Ustiapeneko beste gastu batzuk ........ 16

ALEGAZIOAK ........ 19

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS ... 17

I. INTRODUCCIÓN ... 18

II. OPINIÓN ... 20

II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad ... 20
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales ... 20

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN ... 21

III.1 Contratación ... 21
III.2 Plazo de pago a proveedores ... 21

IV. CUENTAS ANUALES ... 22

ANEXOS ... 24

A.1 Normativa aplicable ... 24
A.2 Inversiones inmobiliarias ... 25
A.3 Existencias ... 25
A.4 Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar ... 26
A.5 Deudas a corto plazo ... 26
A.6 Importe neto de la cifra de negocios ... 27
A.7 Personal ... 27
A.8 Otros gastos de explotación ... 28

ALEGACIONES ... 35

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 31
Vitoria-Gasteiz, a 31 de octubre de 2019

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

| | |
|---|---|
| EAE | Euskal Autonomia Erkidegoa. |
| EOM | Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. |
| STC-ELS SA | Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA. |
| SPKLTB | Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina. |
| EAEHONALTB | Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina. |

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean Epaitegia) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onartutako Lanerako Planean jasotakoari jarraikiz, Arabako Industrialdea SAren (aurrerantzean Sozietatea) 2017ko ekitaldiko Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea aurrekontu, langileria eta ondasun eta zerbitzuko kontratuetan.
- Kontularitzakoak: urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea. Sozietateari urtero egiten diote auditoria bat; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki iritzitako proba osagarriak egin ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Sozietatea 1991ko ekainaren 5ean eratu zen eta hasiera batean Legutianoko Industrialdea SA izena eman zitzaion.

1997an Sozietateak honako hauekin bat egin zuen: Iruña-Okako Industrialdea SA, Aguraingo Industrialdea SA eta Kanpezuko Industrialdea SA. Azken hiru sozietate hauek xurgapen bidez desegin ziren eta ondarea Legutianoko Industrialdea SAri eskualdatu zioten, zeinak Lautadako Industrialdea SA izen berria hartu baitzuen.

2011n Lautadako Industrialdea SA xurgapen bidez Aiara Haraneko lndustrialdea SArekin elkartu zen, zeina desegin zen sozietatearen ondarea oso-osorik Lautadako Industrialdea SAren eskuetara aldatuz; baturaren ondorioz, Arabako Industrialdea SA izena hartu zuen.

Sozietatea SPRI Taldeko kide da, STC-ELS SA sozietatea buru dela, eta EAEren Administrazio Orokorrak % 99,1eko partaidetza du.

2017ko abenduaren 31n akziodunen osaera honakoa da:

Euroak milakotan

| Akziodunak | % partaidetza | Zenbat. |
|---|---|---|
| SPRILUR SA (*) | % 56,75 | 7.296 |
| Araba Garapen Agentzia SAU (**) | % 43,25 | 5.560 |
| **GUZTIRA** | **% 100** | **12.856** |

**(*)** STC-ELS SAk % 94ko partaidetza du Sozietatean eta EAEren Administrazio Orokorrak % 6koa.

**(**)** Arabako Foru Aldundiak % 100eko partaidetza du Sozietatean.

EAEren sozietate publiko den aldetik nortasun juridiko propioa du eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan berariaz aplikagarri zaizkion xedapenek arautzen dute eta horiei aurka egiten ez dietenetan, zuzenbide pribatuak arautzen du, EAEHONALTBren III. Idazpuruaren IV. Kapituluan agindutakoari jarraikiz.

Sozietatearen helburua da Arabako Lurralde Historikoan industria ekimena eta inbertsioa sustatzea, honako hauen bidez:

- enpresak hartzeko lurzoru egokiaren hirigintzako sustapena eta horretarako, hirigintza planen sustapen eta idazketa eta urbanizazio, birpartzelazio eta konpentsazio proiektuak edo hirigintzako legediak aurreikusten duen bestelako zeinahi molde baliatuko du; baita, lurzorua urbanizatu eta sustatzeko egokia den edozein lurzoruren jabetza erostea ere.
- Pabiloien industria-guneak eta eraikin osagarriak eraikitzea, jabetza osorik eskualdatu arte kudeatuaz.

Sozietatea Industrialdeak Programan dago sartua eta helburua da enpresa-jarduera laguntzea eta industriak dauden udalerrietako baldintza sozioekonomikoak hobetzea.

Sozietateak azken sustapena Gasteizen Jundizko Poligonoaren bigarren fasea izan zen, 2011n amaitu zena. Gaur egun, poligono honez gain, Sozietateak beste lau poligonotan ere ondasun higiezinak ditu saldu edo alokatzeko (ikus A.2 eta A.3).

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# II. IRITZIA

## II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Arabako Industrialdea SAk zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Arabako Industrialdea SAren 2017ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, legedian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

# III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

## III.1 KONTRATAZIOA

- Sozietateak ez ditu EAEko Kontratuen Erregistroan erregistratu ekitaldian gauzatutako kontratu guztiak, EAEren sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 52. eta 55. artikuluetan agintzen denaren aurka.

## III.2 HORNITZAILEEN ORDAINKETA EPEAK

- Sozietateak guztira 10.644 euro ordaindu ditu 30 eguneko gehieneko epea gaindituta (2017ko ekitaldiko ordainketa guztien % 10,7), merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikuluan finkatzen duen gehieneko epea.

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# IV. URTEKO KONTUAK

## EGOERAREN BALANTZEA

Euroak milakotan

| | Eransk. | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| **AKTIBO EZ ARRUNTA** | | **2.692** | **1.361** |
| Ibilgetu materiala | | 185 | 195 |
| Ibilgetuko inbertsioak | A.2 | 2.507 | 1.125 |
| Atzeratutako zergengatiko aktiboak | | - | 41 |
| **AKTIBO ARRUNTA** | | **10.988** | **12.766** |
| Izakinak | A.3 | 8.656 | 10.179 |
| Merkataritzako zordunak eta kobrat. beste kontu batz | A.4 | 2.313 | 2.447 |
| Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak | | 19 | 140 |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | | **13.680** | **14.127** |
| **ONDARE GARBIA** | | **9.346** | **9.770** |
| Funts propioak | | 9.346 | 9.770 |
| **PASIBO EZ-ARRUNTA** | | **62** | **55** |
| Epe luzeko zorrak Jasotako bermeak epe luzera | | 62 | 55 |
| **PASIBO ARRUNTA** | | **4.272** | **4.302** |
| Epe laburreko zorrak | A.5 | 4.229 | 4.239 |
| Merkataritzako hartz. eta kobratz. beste kontu batzuk | | 43 | 63 |
| **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA** | | **13.680** | **14.127** |

## GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

| | Eransk. | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| Negozio zifraren zenbateko garbia | A.6 | 93 | 1.598 |
| Enpresak ibilgetuari gehitutako izakinak | A.2 | 1.435 | 559 |
| Enpresak ibilgetuari gehitutako izakinak | | - | (448) |
| Indarreko sustapenetan eta eraikitako eraikinetan izakinen bariazioa | A.3 | (1.435) | (1.153) |
| Hornidurak Izakinen narriadura | A.3 | (88) | (242) |
| Ustiapeneko bestelako sarrerak | | 13 | 9 |
| Langileria-gastuak | A.7 | (131) | (145) |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | A.8 | (235) | (201) |
| Ibilgetua amortizatzea | | (64) | (48) |
| Ibilgetua besterenganatz. narriadura eta emaitza | | - | (52) |
| Beste emaitza batzuk | | 1 | - |
| **USTIAPENAREN EMAITZA** | | **(411)** | **(123)** |
| Sarrera finantzarioak | A.4 | 72 | 55 |
| Gastu finantzarioak | A.5 | (44) | (53) |
| **EMAITZA FINANTZARIOA** | | **28** | **2** |
| **EMAITZA ZERGA AURRETIK** | | **(383)** | **(121)** |
| Etekinen gaineko zerga | | (41) | - |
| **EKITALDIKO EMAITZA** | | **(424)** | **(121)** |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

Euroak milakotan

| 1. SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza | (424) | (121) |
| Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira | (424) | (121) |

Euroak milakotan

| 2. ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA, GUZTIRA | Kapitala | Jaulkipen prima | Erreserbak | Aurr.ekit. emait.neg. | Ekital. emaitza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **SALDOA 2015EKO ABENDUAREN 31N** | **12.856** | **149** | **137** | **(2.484)** | **(767)** | **9.891** |
| Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .................. | - | - | - | - | (121) | (121) |
| 2015eko ekitaldiaren emaitzaren banaketa ............ | - | - | - | (767) | 767 | - |
| **SALDOA 2016KO ABENDUAREN 31N** | **12.856** | **149** | **137** | **(3.251)** | **(121)** | **9.770** |
| Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .................. | - | - | - | - | (424) | (424) |
| 2016ko ekitaldiaren emaitzaren banaketa.............. | - | - | - | (121) | 121 | - |
| **SALDOA 2017KO ABENDUAREN 31N** | **12.856** | **149** | **137** | **(3.372)** | **(424)** | **9.346** |

# ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| **Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik** | **(383)** | **(121)** |
| **Emaitzaren doiketak** | **124** | **98** |
| Ibilgetua amortizatzea........................................................................ | 64 | 48 |
| Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak ............................................... | 88 | 52 |
| Sarrera finantzarioak ......................................................................... | (72) | (55) |
| Gastu finantzarioak ........................................................................... | 44 | 53 |
| **Kapital arruntean aldaketak** | **118** | **278** |
| Izakinak ............................................................................................ | - | 1.282 |
| Zordunak eta kobratz. beste knt. b..................................................... | 208 | (897) |
| Beste aktibo arrunt batzuk ................................................................. | (71) | - |
| Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. ............................................ | (9) | (49) |
| Beste aktibo eta pasibo ez arrunt batzuk ............................................ | 7 | (65) |
| Arruntak ez diren beste pasibo batzuk ............................................... | (17) | 7 |
| **Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk** | **28** | **152** |
| Interesen ordainketak......................................................................... | (44) | (53) |
| Interesengatiko kobrantzak ................................................................ | 72 | 55 |
| Mozkinen gaineko zerga kontzeptuan kobrantzak ............................. | - | 150 |
| USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | (113) | 407 |
| Ordainketak inbertsioengatik ............................................................. | - | (16) |
| INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK | - | (16) |
| Finantza pasiboaren tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak ........... | (8) | (281) |
| FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK | (8) | (281) |
| ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA | (121) | 110 |
| **Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran** | **140** | **30** |
| **Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran** | **19** | **140** |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# ERANSKINAK

## A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

2017ko ekitaldian ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapitalezko Sozietateen Legeari buruzko Testu Bategina onesten duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, EAEONALTB onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.
- 1994ko abenduaren 28ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra ibilgetuko enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 733/2010 Agindua, martxoaren 25ekoa, inguruabar jakinetan jarduten duten enpresa publikoen kontularitzako alderdiak onartzen dituena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, SPKLTB onartzen duena.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 5/2015 Errege Lege-dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, Merkataritzako Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak ezartzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari Buruzkoa.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, SPKLTBren arabera, sozietateak aginte esleitzaile izaera du eta kontratuak pribatuak dira. Europar Batasuneko gutxieneko mailak (erregulazio harmonizatuari lotuak) gainditzen dituzten kontratuak prestalanari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu. Atalase horiek gainditzen ez dituztenek onetsitako eta kontratatzailearen profilean argitaratutako Kontratazioko Barne Jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean. Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez-bazterkeria printzipioak gorde beharko dira.

Langileak kontratatzean, sozietate publikoa den aldetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago.

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## A.2 IBILGETUKO INBERTSIOAK

Hona hemen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

Euroak milakotan

| KONTZEPTUA | 16.12. 31 | Izakinen eskualdatzea | Zuzkidura | 17.12. 31 |
|---|---|---|---|---|
| **Kostua** | | | | |
| Litutxipiko poligonoko bulegoa (Agurain) | 49 | - | - | 49 |
| Maskuribaiko poligonoan pabiloiak (Amurrio) | 200 | 310 | - | 510 |
| Jundizko poligonoan bulegoak eta pabiloiak (Gasteiz) | 1.074 | 1.359 | - | 2.433 |
| **KOSTUA GUZTIRA** | **1.323** | **1.669** | **-** | **2.992** |
| **AMORTIZAZIO METATUA** | **(139)** | **-** | **(53)** | **(192)** |
| **Narriadura** | | | | |
| Maskuribaiko poligonoan pabiloiak (Amurrio) | - | (42) | - | (42) |
| Jundizko poligonoan bulegoak eta pabiloiak (Gasteiz) | (59) | (192) | - | (251) |
| **NARRIADURA GUZTIRA** | **(59)** | **(234)** | **-** | **(293)** |
| **IBILGETUKO INBERTSIOAK GUZTIRA** | **1.125** | **1.435** | **(53)** | **2.507** |

Idazpuru honek errentamendura emandako ondasun higiezinak jasotzen ditu. Ekitaldian sortutako 92.568 euroren diru-sarrerak “Negozio zifraren zenbateko garbia” idazpuruan erregistratzen dira (ikus A.6).

2017an izakinetatik 1,4 milioi euroren zenbatekoa eskualdatu da (ikus A.3), Jundizko poligonoko sei pabiloiren eta Maskuribaiko poligonoko bi pabiloiren kontularitzako balio garbiarenak, zeinen gainean errentamendu kontratuak izenpetu baitira.

## A.3 IZAKINAK

Hona hemen izakinen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

Euroak milakotan

| KONTZEPTUA | 16.12. 31 | Ibilgetuko inberts. eskualdatzea (ikus A.2) | Zuzkidura | 17.12. 31 |
|---|---|---|---|---|
| **Kostua** | | | | |
| Litutxipi poligonoko pabiloia (Agurain) | 110 | - | - | 110 |
| Gojaingo poligonoko bulegoak (Legutiano) | 22 | - | - | 22 |
| Maskuribaiko poligonoko pabiloiak (Amurrio) | 4.395 | (310) | - | 4.085 |
| Jundizko poligonoko bulegoak eta pabiloiak (Gasteiz) | 7.471 | (1.359) | - | 6.112 |
| Salbarteko poligonoko pabiloiak (Harana) | 582 | - | - | 582 |
| **KOSTUA GUZTIRA** | **12.580** | **(1.669)** | **-** | **10.911** |
| **Narriadura** | | | | |
| Maskuribaiko poligonoko pabiloiak (Amurrio) | (893) | 42 | - | (851) |
| Jundizko poligonoko bulegoak eta pabiloiak (Gasteiz) | (1.330) | 192 | - | (1.138) |
| Salbarteko poligonoko pabiloiak (Harana) | (178) | - | (88) | (266) |
| **NARRIADURA GUZTIRA** | **(2.401)** | **234** | **(88)** | **(2.255)** |
| **IZAKINAK GUZTIRA** | **10.179** | **(1.435)** | **(88)** | **8.656** |

## A.4 MERKATARITZAKO ZORDUNAK ETA KOBRATZEKO BESTE KONTU BATZUK

Hona hemen xehakapena:

Euroak milakotan

| KONTZEPTUA | 31.12.17 | 31.12.16 |
|---|---|---|
| Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe laburrera | 146 | 209 |
| Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe luzera | 2.031 | 2.173 |
| Zerga arruntengatiko aktiboak (Sozietateen zergaren atxikipenak) | 136 | 65 |
| **GUZTIRA** | **2.313** | **2.447** |

"Salmenta eta zerbitzuen emakidagatiko bezeroak" idazpuruaren saldoak lehenagoko ekitaldietan izenpetutako erosketa aukeradun errentamendu kontratuetatik 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dagoen kopuruari dagozkio nagusiki, zeinak salmentagatiko sarrera modura erregistratu baitziren izenpetu zirenean, errentan emandako ondasunak izakinetatik baja eginez.

2017an erosketa aukeradun beste errentamendu kontratu bat izenpetu da 12 urtetarako eta bezeroen aurrerakin modura erregistratu da harik eta salmentagatiko sarrera modura erregistratzeko beharrezko baldintzak betetzen diren arte. 2017an ordaindu diren kuotak, interesak kenduta (2.916 euro), bezeroen aurrerakin modura kontabilizatu dira Egoeraren balantzeko "Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk" idazpuruan.

Eragiketa hauen finantza-sarrerak, 72.277 euro 2017an, sortzapenaren arabera erregistratzen dira.

## A.5 ZORRAK EPE LABURRERA

2006, 2007 eta 2009ko ekitaldietan Sozietateak hiru kreditu kontratu formalizatu zituen kontu korrontean SPRILUR SArekin, zeinak Maskuribaiko poligonoak 8Amurrio) eta Jundizko poligonoaren (Gasteiz) bigarren faseak aurrera egin ahala baliatu ziren; bi poligonoak 2012an berrelkartu ziren. 2017ko abenduaren 31n zor saldoa 4,2 milioi euro da eta kredituaren adostutako muga honakoa.

Euroak milakotan

| DATA | Kreditu muga |
|---|---|
| 2018.12. 31 | 4.300 |
| 2019.12. 31 | 3.900 |
| 2020.12. 31 | 3.500 |
| 2021.12. 31 | 3.000 |
| 2022.12. 31 | 2.500 |
| 2023.12. 31 | 2.000 |
| 2024.12. 31 | 1.500 |
| 2025.12. 31 | 1.000 |
| 2026.12. 31 | 500 |
| 2027.12. 31 | - |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

2017ko ekitaldian ezarritako interes-tipoa % 1,1ekoa izan da ekainaren 30 arte eta % 1ekoa ordutik aurrera; guztira 44.180 euroren interesak sortu ditu.

## A.6 NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA

Hona hemen epigrafe honen xehetasunak:

Euroak milakotan

| KONTZEPTUA | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Pabiloien salmenta | - | 400 |
| Pabiloien salmentak Erosketa aukera duten errentamendu kontratuak | - | 1.127 |
| Errentamendu operatiboak (ikus A.2) | 93 | 71 |
| **GUZTIRA** | **93** | **1.598** |

## A.7 LANGILERIA

Honako hauek dira langile gastuak:

Euroak milakotan

| KONTZEPTUA | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Soldatak eta ordainsariak | 107 | 119 |
| Gizarte Segurantza | 24 | 26 |
| **GUZTIRA** | **131** | **145** |

2017ko ekitaldiko ordainsari-igoera orokorra % 1ekoa da 2016ko ekitaldiko ordainsari osoen aldean.

Gasteizko Epaitegiko lan-arloko aretoaren epaiaren ondorioz, utzi gabe geratu da 2015eko uztailaren 31z geroztik 2010ean egindako soldata-murrizketa. Sozietateak 2015 eta 2016ko ekitaldietako atzerapen kontzeptuan 4.213 euro ordaindu ditu eta 2017ko ordainsariak doitu ditu.

2017an 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren % 48,89 ordaindu da, uztailaren 13ko Legegintzako Errege Dekretua aplikatuta kendu zena, aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa. 2015 eta 2016an ordainsari honen gainerakoa ordaindu zen (% 51,11).

Sozietateak lan kontratu mugagabea duten bi langile ditu.

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## A.8 USTIAPENEKO BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen epigrafe honen xehetasunak:

Euroak milakotan

| KONTZEPTUA | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Errentamenduak eta kanonak | 1 | 1 |
| Konponketak eta zaintza | 14 | 18 |
| Profesional independenteen zerbitzuak | 21 | 41 |
| Aseguru primak | 7 | 8 |
| Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak | 1 | 1 |
| Hornidurak | 2 | 3 |
| Jabe-erkidegoen gastua | 47 | 57 |
| Amurrioko Udalaren hitzarmena Saratxo urbanizazioa | 60 | - |
| Bestelako zerbitzuak | 49 | 47 |
| Estatuaren eta udalaren zergak | 33 | 25 |
| **GUZTIRA** | **235** | **201** |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# ARABAKO INDUSTRIALDEA SAREN 2017KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

## I. SARRERA

Arabako Industrialdea SAren 2017ko fiskalizazioaren emaitzei erantzuna emateko, sozietateak gaiaren inguruan egin dituen alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu ditu alegazio eta justifikazio horiek.

## III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEATZEKO PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

### III.1 KONTRATAZIOA

*"Sozietateak ez ditu EAEko Kontratuen Erregistroan inskribatu ekitaldian egindako kontratuak, nahiz eta inskribatu beharra ezarri uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak (EAEko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoa) 52. eta 55. artikuluetan."*

Sozietatea oraintxe bertan ari da kontratazio-datuak sartzen Kontratuen Erregistroan. Beraz, laster egoera konponduta egotea aurreikusten da, hau da, erosketa guztiak erregistratuta egotea.

### III.2 HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO EPEA

*"Sozietateak guztira 10.644 euro ordaindu ditu (2017ko ekitaldiko ordainketen % 10,7) Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikuluan ezartzen den 30 eguneko gehieneko epea gaindituta."*

Hori dela-eta, adierazi behar da zenbait fakturatan (7.000 euro inguru) 30 eguneko ordainketa-epea gainditu dela hornitzaileek eurek berandu egin dutelako zordunketa sozietatearen kontu helbideratuan; gainera, oporren sasoian atzerapenak gertatu dira uztailaren amaierako data zuten faktura batzuk irailean jaso direlako, oporretatik itzulitakoan.

Bestalde, 3.000 euroko ordainketa bat atzeratu egin zen (31 eguneko epean ordaindu zen, zehazki) hornitzaileak berandu eman zuelako faktura.



Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## ABREVIATURAS

| | |
|---|---|
| CAE | Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| CAPV | Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| EHA | Ministerio de Economía y Hacienda. |
| STC-ELS, SA | Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA. |
| TRLCSP | Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. |
| TRLPOHGPV | Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante el Tribunal), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988 y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las cuentas anuales del ejercicio 2017 de Arabako Industrialdea, SA (en adelante la Sociedad).

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legales: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, personal y adquisición de bienes y servicios.
- Contables: conformidad de las cuentas anuales con los principios contables que le resulten de aplicación. La Sociedad se encuentra auditada, por lo que nuestro trabajo ha consistido en una revisión de los papeles de trabajo de los auditores, realizando, en su caso, las pruebas complementarias que hemos considerado necesarias.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Sociedad se constituyó el 5 de junio de 1991 con la denominación inicial de Legutianoko Industrialdea, SA.

En 1997 la Sociedad se fusionó con Iruña-Okako Industrialdea, SA, Aguraingo Industrialdea, SA y Kanpezuko Industrialdea, SA. Estas tres últimas sociedades se extinguieron por absorción, transmitiendo su patrimonio a Legutianoko Industrialdea, SA, que pasó a denominarse Lautadako Industrialdea, SA.

En 2011 Lautadako Industrialdea, SA se fusionó por absorción con Aiara Haraneko lndustrialdea, SA, que se extinguió transmitiendo en bloque su patrimonio social a Lautadako Industrialdea, SA, que pasó a denominarse Arabako Industrialdea, SA.

La Sociedad forma parte del Grupo SPRI, encabezado por la sociedad STC-ELS, SA, participada en un 99,1% por la Administración General de la CAPV.

La composición del accionariado a 31 de diciembre de 2017 es:

Miles de euros

| Accionista | % Participación | Importe |
|---|---|---|
| SPRILUR, SA **(*)** | 56,75% | 7.296 |
| Álava Agencia de Desarrollo SAU **(**)** | 43,25% | 5.560 |
| **TOTAL** | **100%** | **12.856** |

**(*)** Sociedad participada en un 94% por STC-ELS, SA y un 6% por la Administración General de la CAPV.
**(**)** Sociedad participada al 100% por la Diputación Foral de Álava.

Como sociedad pública de la CAPV, está dotada de personalidad jurídica propia, y se rige, en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, por las disposiciones referentes a las mismas que le sean de expresa aplicación y, en lo que no las

contradigan, por el derecho privado, de conformidad con lo establecido en el Capítulo IV del Título III del TRLPOHGPV.

La Sociedad tiene por objeto estimular y promover la iniciativa y la inversión industrial en el Territorio Histórico de Álava mediante:

- La promoción urbanística de suelo apto para la implantación empresarial, mediante la promoción y redacción de planes urbanísticos y proyectos de urbanización, reparcelación, compensación o cualesquiera otras figuras previstas en la legislación urbanística; así como mediante la adquisición por cualquier título de suelo apto para urbanización y promoción industrial.
- La construcción de complejos industriales de pabellones y edificaciones complementarias, gestionando los mismos hasta la total transferencia de su titularidad.

La Sociedad está incluida dentro del Programa Industrialdeak, cuyo objetivo es favorecer la actividad empresarial y mejorar las condiciones socioeconómicas de los municipios donde actúan.

La última promoción efectuada por la Sociedad fue la segunda fase del Polígono de Júndiz en Vitoria-Gasteiz, finalizada en 2011. Actualmente, además de en este polígono, la Sociedad dispone de bienes inmuebles para su venta o alquiler en otros cuatro polígonos más (ver A.2 y A.3).

# II. OPINIÓN

## II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En opinión de este Tribunal, Arabako Industrialdea, SA ha cumplido razonablemente en el ejercicio 2017 la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

## II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

En opinión de este Tribunal, las cuentas anuales del ejercicio 2017 de Arabako Industrialdea, SA expresan en todos los aspectos significativos la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre de 2017, así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

## III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

### III.1 CONTRATACIÓN

- La Sociedad no ha inscrito en el Registro de Contratos de la CAE los contratos efectuados en el ejercicio, inscripción establecida en los artículos 52 y 55 del Decreto 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la CAE.

### III.2 PLAZO DE PAGO A PROVEEDORES

- La Sociedad ha abonado un total de 10.644 euros (un 10,7% del total de los pagos en el ejercicio 2017) superando el plazo máximo de 30 días establecido en el artículo 4 de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, de medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# IV. CUENTAS ANUALES

## BALANCE DE SITUACIÓN

Miles de euros

| | Anexo | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| **ACTIVO NO CORRIENTE** | | **2.692** | **1.361** |
| Inmovilizado material | | 185 | 195 |
| Inversiones inmobiliarias | A.2 | 2.507 | 1.125 |
| Activos por impuestos diferidos | | - | 41 |
| **ACTIVO CORRIENTE** | | **10.988** | **12.766** |
| Existencias | A.3 | 8.656 | 10.179 |
| Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar | A.4 | 2.313 | 2.447 |
| Efectivo y otros activos equivalentes | | 19 | 140 |
| **TOTAL ACTIVO** | | **13.680** | **14.127** |
| **PATRIMONIO NETO** | | **9.346** | **9.770** |
| Fondos Propios | | 9.346 | 9.770 |
| **PASIVO NO CORRIENTE** | | **62** | **55** |
| Deudas a largo plazo. Fianzas recibidas a largo plazo | | 62 | 55 |
| **PASIVO CORRIENTE** | | **4.272** | **4.302** |
| Deudas a corto plazo | A.5 | 4.229 | 4.239 |
| Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar | | 43 | 63 |
| **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO** | | **13.680** | **14.127** |

## CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS

Miles de euros

| | Anexo | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| Importe neto de la cifra de negocios | A.6 | 93 | 1.598 |
| Existencias incorporadas por la empresa al inmovilizado | A.2 | 1.435 | 559 |
| Inmovilizado incorporado por la empresa a existencias | | - | (448) |
| Variación existencias promociones en curso y edificios construidos | A.3 | (1.435) | (1.153) |
| Aprovisionamientos. Deterioro de existencias | A.3 | (88) | (242) |
| Otros ingresos de explotación | | 13 | 9 |
| Gastos de personal | A.7 | (131) | (145) |
| Otros gastos de explotación | A.8 | (235) | (201) |
| Amortización del inmovilizado | | (64) | (48) |
| Deterioro y resultado por enajenaciones de inmovilizado | | - | (52) |
| Otros resultados | | 1 | - |
| **RESULTADO DE EXPLOTACIÓN** | | **(411)** | **(123)** |
| Ingresos financieros | A.4 | 72 | 55 |
| Gastos financieros | A.5 | (44) | (53) |
| **RESULTADO FINANCIERO** | | **28** | **2** |
| **RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS** | | **(383)** | **(121)** |
| Impuesto sobre beneficios | | (41) | - |
| **RESULTADO DEL EJERCICIO** | | **(424)** | **(121)** |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# ESTADO DE CAMBIOS EN EL PATRIMONIO NETO

Miles de euros

| 1. ESTADO DE INGRESOS Y GASTOS RECONOCIDOS | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| A) Resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias | (424) | (121) |
| TOTAL INGRESOS Y GASTOS RECONOCIDOS | (424) | (121) |

Miles de euros

| 2. ESTADO TOTAL DE CAMBIOS EN EL PATRIMONIO NETO | Capital | Prima Emisión | Reservas | Rdo.Neg Ej. Ant. | Rdo.del Ejercicio | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SALDO A 31 DE DICIEMBRE DE 2015 | 12.856 | 149 | 137 | (2.484) | (767) | 9.891 |
| Total ingresos y gastos reconocidos ........................ | - | - | - | - | (121) | (121) |
| Distribución del resultado del ejercicio 2015 ........... | - | - | - | (767) | 767 | - |
| SALDO A 31 DE DICIEMBRE DE 2016 | 12.856 | 149 | 137 | (3.251) | (121) | 9.770 |
| Total ingresos y gastos reconocidos ........................ | - | - | - | - | (424) | (424) |
| Distribución del resultado del ejercicio 2016 ........... | - | - | - | (121) | 121 | - |
| SALDO A 31 DE DICIEMBRE DE 2017 | 12.856 | 149 | 137 | (3.372) | (424) | 9.346 |

# ESTADO DE FLUJOS DE EFECTIVO

Miles de euros

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| **Resultado del ejercicio antes de impuestos** | **(383)** | **(121)** |
| **Ajustes del resultado** | **124** | **98** |
| Amortización del inmovilizado........................................................... | 64 | 48 |
| Correcciones valorativas por deterioro................................................. | 88 | 52 |
| Ingresos financieros........................................................................... | (72) | (55) |
| Gastos financieros.............................................................................. | 44 | 53 |
| **Cambios en el capital corriente** | **118** | **278** |
| Existencias.......................................................................................... | - | 1.282 |
| Deudores y otras cuentas a cobrar...................................................... | 208 | (897) |
| Otros activos corrientes...................................................................... | (71) | - |
| Acreedores y otras cuentas a pagar.................................................... | (9) | (49) |
| Otros activos y pasivos no corrientes.................................................. | 7 | (65) |
| Otros pasivos no corrientes................................................................. | (17) | 7 |
| **Otros flujos de efectivo de las actividades de explotación** | **28** | **152** |
| Pagos de intereses.............................................................................. | (44) | (53) |
| Cobros por intereses........................................................................... | 72 | 55 |
| Cobros por impuesto sobre beneficios................................................. | - | 150 |
| FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN | (113) | 407 |
| Pagos por inversiones......................................................................... | - | (16) |
| FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE INVERSIÓN | - | (16) |
| Cobros y pagos por instrumentos de pasivo financiero ......................... | (8) | (281) |
| FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE FINANCIACIÓN | (8) | (281) |
| AUMENTO/DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES | (121) | 110 |
| Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio | 140 | 30 |
| Efectivo o equivalentes al final del ejercicio | 19 | 140 |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# ANEXOS

## A.1 NORMATIVA APLICABLE

La principal normativa aplicable en el ejercicio 2017 es la siguiente:

- Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Sociedades de Capital.
- Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el TRLPOHGPV.
- Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la CAE.
- Ley 2/2017, de 11 de abril, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la CAE para el ejercicio 2017.
- Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad.
- Orden de 28 de diciembre de 1994, por la que se aprueban las Normas de Adaptación del Plan General de Contabilidad a las empresas inmobiliarias.
- Orden EHA/733/2010, de 25 de marzo, por la que se aprueban aspectos contables de empresas públicas que operan en determinadas circunstancias.
- Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el TRLCSP.
- Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.
- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.
- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Respecto a la contratación de bienes y servicios, de acuerdo con el TRLCSP la Sociedad tiene la consideración de poder adjudicador y sus contratos son privados. Los contratos que superen los umbrales comunitarios (sujetos a regulación armonizada) se regirán, en cuanto a su preparación y adjudicación, en defecto de normas específicas, por el TRLCSP. Los que no superen dichos umbrales deben aplicar en la adjudicación sus propias Instrucciones Internas de Contratación aprobadas y publicadas en el perfil de contratante. En todos los supuestos deben respetar los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación.

Por lo que se refiere a la contratación de personal, en cuanto que es una sociedad pública, está sometida a los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## A.2 INVERSIONES INMOBILIARIAS

El detalle y movimiento en el ejercicio 2017 es:

Miles de euros

| CONCEPTO | 31.12.16 | Traspaso de existencias | Dotación | 31.12.17 |
|---|---|---|---|---|
| **Coste** | | | | |
| Oficina Polígono Litutxipi (Agurain)................................................ | 49 | - | - | 49 |
| Pabellones en Polígono Maskuribai (Amurrio) ................................ | 200 | 310 | - | 510 |
| Oficinas y pabellones Polígono Júndiz (Vitoria-Gasteiz) ................. | 1.074 | 1.359 | - | 2.433 |
| **TOTAL COSTE** | **1.323** | **1.669** | **-** | **2.992** |
| **AMORTIZACIÓN ACUMULADA** | **(139)** | **-** | **(53)** | **(192)** |
| **Deterioro** | | | | |
| Pabellones Polígono Maskuribai (Amurrio) .................................... | - | (42) | - | (42) |
| Oficinas y pabellones Polígono Júndiz (Vitoria-Gasteiz) ................. | (59) | (192) | - | (251) |
| **TOTAL DETERIORO** | **(59)** | **(234)** | **-** | **(293)** |
| **TOTAL INVERSIONES INMOBILIARIAS** | **1.125** | **1.435** | **(53)** | **2.507** |

Este epígrafe recoge los bienes inmuebles destinados al arrendamiento. Los ingresos devengados en el ejercicio por 92.568 euros se registran en "importe neto de la cifra de negocios" (ver A.6).

En 2017 se ha traspasado de existencias (ver A.3) un importe de 1,4 millones de euros, correspondiente al valor neto contable de seis pabellones en el Polígono de Júndiz y dos en el Polígono Maskuribai, sobre los que se han firmado contratos de arrendamiento.

## A.3 EXISTENCIAS

El detalle y movimiento en el ejercicio 2017 de las existencias es:

Miles de euros

| CONCEPTO | 31.12.16 | Traspaso a Inv. Inmobiliarias (ver A.2) | Dotación | 31.12.17 |
|---|---|---|---|---|
| **Coste** | | | | |
| Pabellón Polígono Litutxipi (Agurain) ................................... | 110 | - | - | 110 |
| Oficinas Polígono Gojain (Legutiano) ................................... | 22 | - | - | 22 |
| Pabellones y locales Polígono Maskuribai (Amurrio) ............. | 4.395 | (310) | - | 4.085 |
| Pabellones y oficinas Polígono Júndiz (Vitoria-Gasteiz) .......... | 7.471 | (1.359) | - | 6.112 |
| Pabellones Polígono Salbarte (Valle de Arana) ...................... | 582 | - | - | 582 |
| **TOTAL COSTE** | **12.580** | **(1.669)** | **-** | **10.911** |
| **Deterioro** | | | | |
| Pabellones y locales Polígono Maskuribai (Amurrio) ............. | (893) | 42 | - | (851) |
| Pabellones y oficinas Polígono Júndiz (Vitoria-Gasteiz) .......... | (1.330) | 192 | - | (1.138) |
| Pabellones Polígono Salbarte (Valle de Arana) ...................... | (178) | - | (88) | (266) |
| **TOTAL DETERIORO** | **(2.401)** | **234** | **(88)** | **(2.255)** |
| **TOTAL EXISTENCIAS** | **10.179** | **(1.435)** | **(88)** | **8.656** |

## A.4 DEUDORES COMERCIALES Y OTRAS CUENTAS A COBRAR

El detalle es:

Miles de euros

| CONCEPTO | 31.12.17 | 31.12.16 |
|---|---|---|
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios a corto plazo | 146 | 209 |
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios a largo plazo | 2.031 | 2.173 |
| Activos por impuesto corriente (retenciones Impuesto de Sociedades) | 136 | 65 |
| **TOTAL** | **2.313** | **2.447** |

Los saldos de "clientes por ventas y prestaciones de servicios" corresponden, fundamentalmente, al importe pendiente de cobro a 31 de diciembre de 2017 de los contratos de arrendamiento con opción de compra suscritos en ejercicios anteriores y que se registraron, a su firma, como ingresos por ventas, dando de baja del activo los bienes arrendados.

En 2017 se ha firmado un nuevo contrato de arrendamiento a 12 años con opción de compra, registrado como anticipos de clientes hasta que se den las condiciones necesarias para el registro de esta operación como ingresos por venta. Las cuotas pagadas en 2017, excepto los intereses, por un importe de 2.916 euros, se han contabilizado como anticipos de clientes en el epígrafe "acreedores comerciales y otras cuentas a pagar" del balance de situación.

Los ingresos financieros de estas operaciones, 72.277 euros en 2017, se registran en función a su devengo.

## A.5 DEUDAS A CORTO PLAZO

En los ejercicios 2006, 2007 y 2009, la Sociedad formalizó tres contratos de crédito en cuenta corriente con SPRILUR, SA que se dispusieron en función del desarrollo del Polígono de Maskuribai (Amurrio) y de la segunda fase del polígono de Júndiz (Vitoria-Gasteiz), que se reunificaron en 2012. A 31 de diciembre de 2017 el saldo pendiente asciende a 4,2 millones de euros, siendo el límite de crédito acordado el siguiente:

Miles de euros

| FECHA | Límite de crédito |
|---|---|
| 31.12.2018 | 4.300 |
| 31.12.2019 | 3.900 |
| 31.12.2020 | 3.500 |
| 31.12.2021 | 3.000 |
| 31.12.2022 | 2.500 |
| 31.12.2023 | 2.000 |
| 31.12.2024 | 1.500 |
| 31.12.2025 | 1.000 |
| 31.12.2026 | 500 |
| 31.12.2027 | - |

El tipo de interés aplicado en el ejercicio 2017 es el 1,1% hasta 30 de junio y del 1% a partir de dicha fecha, habiéndose devengado unos intereses de 44.180 euros.

## A.6 IMPORTE NETO DE LA CIFRA DE NEGOCIOS

El detalle de este epígrafe es:

Miles de euros

| CONCEPTO | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Venta de pabellones | - | 400 |
| Ventas de pabellones. Contratos de arrendamiento con opción de compra | - | 1.127 |
| Arrendamientos operativos (ver A.2) | 93 | 71 |
| **TOTAL** | **93** | **1.598** |

## A.7 PERSONAL

Los gastos de personal son:

Miles de euros

| CONCEPTO | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Sueldos y salarios | 107 | 119 |
| Seguridad Social | 24 | 26 |
| **TOTAL** | **131** | **145** |

El incremento retributivo general del ejercicio 2017 es del 1% respecto a las retribuciones íntegras del ejercicio 2016.

Por Sentencia del Juzgado de lo Social de Vitoria-Gasteiz queda sin efecto desde el 31 de julio de 2015 la reducción salarial efectuada en 2010. La Sociedad ha abonado 4.213 euros de atrasos de los ejercicios 2015 y 2016 por este concepto, y ha ajustado las retribuciones de 2017.

En 2017 se ha abonado el 48,89 % de la paga extraordinaria de diciembre de 2012 que fue suprimida en aplicación del Real Decreto Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad. En 2015 y 2016 se abonó el resto de esta paga (51,11%).

La Sociedad cuenta con dos trabajadores con contrato laboral indefinido.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## A.8 OTROS GASTOS DE EXPLOTACIÓN

El detalle de este epígrafe es:

Miles de euros

| CONCEPTO | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Arrendamientos y cánones | 1 | 1 |
| Reparaciones y conservación | 14 | 18 |
| Servicios de profesionales independientes | 21 | 41 |
| Primas de seguros | 7 | 8 |
| Publicidad, propaganda y relaciones públicas | 1 | 1 |
| Suministros | 2 | 3 |
| Gasto comunidades de propietarios | 47 | 57 |
| Convenio Ayuntamiento de Amurrio. Urbanización Saratxo | 60 | - |
| Otros servicios | 49 | 47 |
| Impuestos estatales y municipales | 33 | 25 |
| TOTAL | 235 | 201 |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# ALEGACIONES A LOS RESULTADOS DE LA FISCALIZACIÓN DE ARABAKO INDUSTRIALDEA, S.A. CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2017

## INTRODUCCIÓN

Al objeto de dar respuesta a los Resultados de la Fiscalización de Arabako Industrialdea, S.A. correspondiente a 2017, se presentan en este informe las alegaciones y justificaciones que la Sociedad ha tenido a bien realizar en orden al asunto de referencia y que han sido centralizadas por la Oficina de Control Económico.

## III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

### III.1 CONTRATACIÓN

*"La Sociedad no ha inscrito en el Registro de Contratos de la CAE los contratos efectuados en el ejercicio, inscripción establecida en los artículos 52 y 55 del Decreto 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la CAE."*

La sociedad está inmersa en el proceso de volcado de los datos de contratación al Registro de Contratos. Se espera que próximamente se resuelva la cuestión y ninguna compra deje de estar registrada.

### III.2 PLAZO DE PAGO A PROVEEDORES

*"La Sociedad ha abonado un total de 10.644 euros (un 10,7% del total de los pagos en el ejercicio 2017) superando el plazo máximo de 30 días establecido en el artículo 4 de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, de medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales."*

Al respecto manifestar que en varias facturas (7.000 euros, aproximadamente) se superó el plazo de abono de 30 días debido a la tardanza con que los propios proveedores hicieron el cargo en la cuenta domiciliada de la sociedad, además del desfase producido entre las fechas del periodo vacacional, entre la fecha factura (finales julio) y recepción de dichas facturas (vuelta del periodo vacacional en septiembre).

Por otro lado, un abono de 3.000 euros se retrasó (abonándose en 31 días, concretamente) debido a la demora por parte del proveedor en la entrega de la preceptiva factura.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Beato Tomás de Zumárraga, 69
01008 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 016000 www.tvcp.org